

# Bada alderik

Agintari guztiak berdinak omen dira. Hala esan ohi da askotan. Baina ez da egia. Bada alderik batzuen eta besteen artean.

Frantziak izan du, orain berriro, bere buruzagia hautatzeko aukera. GISCARD ala MITTERRAND? Lehenaren euskarri bata, berri-zearen aldekoa bestea. Eskuinaren santuhartua lehenengoa, ezkerrena bigarrena. Kapitalismoaren zutabe Giscard, sozialismoaren xuxpertzaila Mitterrand.

Hona bi gizon. Bakoitzak bee iritziak eta jokabideak ditu. Bakoitzak bere taldeak dauzka atzetik.

Erdibituri dago Frantzia. Giscard-en alde erdiak. Mitterrand-en alde beste erdiak. Lehenaren segurantzia nahi dute erdiek. Beste erdiek, berriz, berriaren arriskua eta poza.

Ez zen erraza nor irabaziko zuen antzematen. Gogorra eta astuna izan da Frantziaren maiatzaren hemeretzia. Iluntzen ez duen eguna eta argitzen ez duen gaua ezagutu dituzte frantsesek.

Ehuneko 87,40 lagunek parte hartu dute hauteskunde hauetan. Maiatzaren 20ra arte ez da garbi jakiterik izan nor izango zen irabazle. Alde txikia agertzen zen hautarkietan. Ehuneko 50,57 Giscard-en alde. Ehuneko 49,43 Mitterrand-en alde azaltzen zen ingandeko kontu-ematean.

Alde txikiak, baina irabazle atera da azkenean Giscard. Dirudunek, jauntxoek eta eskuindarrek irabazi dute Frantziaren Beldurietan eta zalantziatik ere nahiago izan dute «ezagutu gabeko ona baino ezagututako txarra».

Mitterrand-en politikagintzak haize berri fresko bat eskaintzen zion Frantziari eta Europari. Baina haizeberritzeak eta giroaldatzeak gaixotu egiten du zenbait. Ez ditu denak ondo hartzen giro-aldatzeak. Ondo hartuko lukeen asko ere ikaratu egiten du.

Dena den Giscard du Frantziak bere lehendakari gaurtik aurrera.

Giscard-en agintea lehenengoa baino gozoagoa eta gizatiarra goa izango da, noski. Baina muinean berdina da. Ez du aldaketa sakonik ekarriko. Haundi izanaz jarraituko du Frantziak eta haundi-maundikeria horrek liluraturik frantses asko ez da ohartuko txiki eta loturik dela.

Bosgarren orrialdeak ematen ditu batak eta besteak agindu duenaren berri, zertxobait. Asko agindu dute biek ere. Gehiegi, noski. Izan ere hitzak errazak dira, egiteak dira zailak.

Halere bada bien artean alderik. Sakonagotik heltzen die Mitterrand-ek arazoei. Herrigintzan, lantegian, irakaskintzan esku gehiago izango zukeen jendeak. Europa batzen ahaleginduko zen, armagintza motelazaten, Herri Behartsuei laguntzen.

Frantzia egiazko askatasun, senidetan eta berdintasun bideetan barrena abiatuko ote zen ustea zuen Frantziako eta Europako ezkerrek. Izango ote zuen horretarako Mitterrand-ek nahiko arte eta molde? Aseko ote zuen ezkerria? Frantzia Haundian zaleek ez ote zuten dirua etekin gehiago emango zien lekura eramango?

Dena den ustel gertatu da ezkerrean ustea eta ametza.

Bereganatuko ote du Giscard-ek hautarkiarik eman ez dion beste erdia? Egingo al ditu agindu dituen aldaketak ezkerrek nahi bezain agudo? Zerbait behar zai dago beste erdi hau. Ez dago eskuak toles-turik egoteko prestatu.

Giscard-ek ere ez al ditu nahiko lanak hartu? Ez al zaio behar asaldatuko langileria? Nola baretu behar ditu ixkanbila hauek denak?

Asma dezala bere agintean opa diogu Giscard-i. Horretarako bete dezala lehenabitelen agindu duen guztia. Aldaketa sakonen premian dago Frantzia ere. Motel ibiltzek ez dio ezeren onik ekarriko geroko Frantziari.

# ABSURDISTANGO ERREPUBLIKAZ

Gure herrialdea horretara bataiatuz bukatu du J. Azurmendi lankideak ezkerri buruzko bere sail mamitsua. Eta Maiatzaren 12ko bere artikuluak («Ezkerrearen obligazioa») Alemanian bizi ez garenok ere sumatzen dugun joera berri baten jaiotza isila salatu du: teoriakien eta ezkerkerien betekadaren ondorioz, zenbait lekutan eta gizataldetan hozitzen hasia bide den teoriarekiko herra. «Aski duk», entzuten hasi da bezterretan; «hainbeste teoriak eta intelektualek okoginda utzi gaituzte! Utz ditzaun alde batetara kirtinkeria horiek».

Hots, Azurmendiri bezala niri ere, arrunt larri iruditzen zait esaldi horien arriskua. Zeren-eta, azken buruan, azkeneko urte zail eta luze hauetan ezkerrean bila lehiatu baina okerbidetik saiatu ondoren, orain ondorio bakartzat ideiekiko etsipen eta goragale hori baizik lortuko ez bagenu, etsaiek irabaziko bailukete: birritan eta bi alderditatik batera.

Gerorako xederik edo proiekturik gabe ezkerrik ez dago. Eskuindarrek, jakina denez, ez du gerorako proiektu-baherrik: mundu hau bere horretan edo hori nunitzat ematen duenez gero, bestelakorik ez du nahi eta ez espero, eta nola ote litekeen asmatu beharrik ez du senditzen.

Ezkerrek, berriz, nahi du, eta sinesten, beste mundu bat bestelako mundu bat alegia; eta bestelakoa nahi duenez gero, utopiara lerratze-ko arriskua du, ez dagoena proposatu behar baitu. Hots, askotan, ezinezkoa da ez dagoena; eta, egon, horregatik ez dago. Bestetan, berriz, Kondairan behin eta berriz frogatu denez, ezinezko ziriudiena gertakari bilakatu da, eta lege, eta balauen altxor. Ez zegoena mamitu egin zitekeen, beraz, kasu horietan.

Berezketa edo jorreketa zail horretan, hain zuzen, nahi-ta-etzkoa da egiazko intelektualaren ekarria edo laguntza.

«Errealismo» askoren oinarrian, ordea, eskuinkeriaren deia datza. Bestelako mundu askoren ukaeran, gaurkoaren bedekazioa. Eta horretara, gure artean jaiotzen hasiak den anti-intelektual-aldiak, osoa eta arrazoi-gabea deen antzerkiaren, etsiaren jokora lerratze-ko arrisku nabarmena dakar berarekin.

Gure arteko batzuek etsita daude. Nola ez egongo? Zerk ekarri du etsialdi hau, ordea? Erantzuna ez da zalantzarikoa, ene ustez: erreindako funtsak berak ekarri du; proposatu zitzaiguna ez baitzen gure egoeraren azterketaren bitartez iritsi zitekeen helburua, bazterrak nahasteko hedatu zitzaigun lanbro itogarria baizik. Gure beharrek ez-baina beste muturrekoen xede izkutek zabal erazi zuten!

Erne ibili beharra dago, beraz, oraingo kinkaldi berri honetan; bestela gaitzaren kakoa berriro ere guri itzuririk, bigarren zulo-zulura lerratuko baikinake: apolitizismoaren eskuinkeriaren zulora, alegia. «Teoriarik ez» diotenak, ez dira gure herriaren beharretan funtsaturik mintzo.

Gure artean ez dago, inundiak ere, jakinduriarriko gehiegikeriarik. Aitzitik, modako hitz hanpurusez dismiliturik ere, ezjakinak eta fitzik ikusten ez dutenak sekula baino ugariago dira gaur behar bada. Gure artean, hain zuzen, eta politikari gagoziolarik bereziki, jakinduri-eskasia dago itzela, harrigarria gero. Teoriatzat ezagutarazten diren proposamenduak ez dira inoiz gure beharren azterketaren ondorio. Beti ohi dotoz urrundik eta bestek bestetera oraturik eta prestaturik.

Cure herriaren oinarrien ezjakintza ezin nabarmenago eta lotsagarriago da. Ez dakigu ezer gercatz, eta nun bizi garen ere ez dakigu, ez zerk eta nola honetara gaituen. Baina berdin omen da. Batzuegan aurkitzen dugun ideologi-betekada, beraz, zeharo da alienatua; ez baita inundiak ere gure beharren arabera mamitutako azterketa, albotik albora iragan erazia baizik. Ideologiazko eta abstraziozko betekada horrek, horrela, geure kuntzetik atera gaitu, eta geure egiatik urrundu. Sasi-teoria hori morfina izan zaigu, gurean egiazko ezkerria sor dadin nahi ez dutenek gure lozorroan txertatua.

Eskuin aldetik ez dago guretzako irtenbiderik: ez gaur, jakina; baina are gutxiago bihar. Burgeskumeetatik at, nor ez du hori oraindik ulertzen? Nola izan daiteke gure artean horren egia dirdaitza oraindik ikusten ez duenik? Ez dakit, benetan.

Kapitalismoaren ukoan hasten da ezkerrea. Ez inolaz ere eskuin alderago. Multinazionalen garaian, monopolioen garaian, ezkerrearen mugarrira hortxe dago. Ez dago dudarik.

Baina «Absurdistan»dik irtengo bagara (irtengo gara inoiz? Alajainkoa!) ezker hori egiaz mamitu behar, egia berriz alegia, egia gidari harturik: bai helburuari buruz, bai gure herriaren azterketari buruz. Egia izan behar ezkerrean orea. Eta egia bilaketa etengabe intelektualari dagokio hain zuzen.

Sobera eta lar ez-baina falta eta urri dugu hain zuzen egia teoria hori, geure egia jaina; eta horrenbeste urtez ezkerkeriatan murgilduta ibili ondoren, negargarri- litzateke, eta geroari buruz ezin larriagoa, orain gure bidea... teoriarekiko gorroto berria dela bide, eta «teoriarik aski» horretan finkaturik, eskuindarren eskuetan uztea. Berriz ere!!

Ez jaunak:

1) Nahi genukeen gizarte berri horren programarik gabeko ezkerrik ez dago. Teoria bat behar dugu; eta teori-jorreketa horretan intelektualak behar ditugu argitzaile eta gidari.

2) Nundik eta nola joango garen ere aztertu beharra dago. Jokabideen mailan, beraz, erabaki behar dugu geure eginkizuna, urraketa eta ez utopian hodeietan. Honetan ere teoria eta intelektualak arras ditugu beharrezko.

Lan gaitza dago, beraz, itsusia, zaila, oso zaila, dogmakierien erototik urrun. Lan gogorra ezker intelektualena.

Gaurko etsialdia ez da berez txarra. Garaia bazen, hain zuzen, sasi-ideologia horietan barrena inora ez goazela erreparatzeko. Horretatik, ordea, denaz etsi, eta pragmatismo eskuindar eta hutsera erori beharrik ez dago.

Beste sail batetan Jainkoaren Erreina mundu honetan obratzeko esperantza galdugatik, ezelako gizabiderik ez dagoela eta giza-ekin-tza guztiak berdin direla esan beharrik ez dagoen bezala, agindu zitzaizkigun gizarte-ganbiamendu osoak mito huts gertatu badira ere, gizarte guztiak ez dira elkarren kide! Eta egiazko ezkerrek alienaziorik gabeko helburu bat behar du proposatu. Horra hor pentsatzaileen betebeharra. Ahulek ez bestek behar izaten dute politikabidean, sustatzaile, mitologia nabarmenik. Guk helburu apalagotan, baina egiazko-gotan ere, finkatu behar dugu geroa.

Izan gaitzen zentzudun. Egiazko ezker bat behar dugu, oinak lurrean pausatutik bizi. Eta ez dugu, Irents erazi zaizkigun pozoin ezkerkoien ordez orain apolitizismoa lerratzeak, ezer ikasi eta ulertu ez dugula erakutsiko luke. Eta Kondaira-haro oso bat «morceuvre de diversion» gisa nabarmen agintuko.

Agian ez horrelakorik gertatuko!

LARRESORO

Zeruko ARGIA

Zuzendaria:  
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa, Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoek argitaratua. (Kale Nagusia, 50-1.º Bur-lada - IRUIÑEA).  
Donostia: Okendo, 22  
Tel. 41 95 88

ARPIDE SARIA:

Barruan 350 pezeta  
Korreo batasunetako herrietan 400 pezeta  
Atzerrietako beste herrietan 420 pezeta  
Airez Aldez aurretik galdetu

Salmenta (ale bakoitza) 8 pezeta

Moldiztegia eta Idazkolaria.  
«Gráficas Navasal»  
A. Adoain, 1. IRUIÑEA  
D. L.: NA. 80-1963

